

EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 15ekoa, eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, 2024an emandako zerbitzuak birbarematu ondoren indarrean dauden lan-poltssei dagozkien zerrendak argitaratzea xedatzen duena.

eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariak, 2013ko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez, Agentziaren 2011rako lan-eskaintza publikoari dagozkion Plangintza eta Ebaluazioko arduraduna, Koordinazio Teknikoko arduraduna, Lankidetzako teknikaria eta Genero Berdintasuneko teknikaria lanpostuetako lan-poltsetan langileak eratzea eta integratzea onartu zuen (2013ko azaroaren 20ko EHAA, 221. zk.).

Era berean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2019ko otsailaren 15eko Ebazpenaren bidez, komunikazioko teknikarien lan-poltsa sortzea eta langileak integratzeko onartu zen.

Ebazpen horietan adierazten denez, lan-poltsen kudeaketa EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren arabera arautuko da. Era berean, xedatzen du akordio horren 1. artikuluan ezarritako ezaugarriak dituzten lan-poltsetak langileak birbarematu egingo direla, EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan emandako zerbitzuen arabera.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen da, lan-poltssei buruzko akordio hori indargabetzen da, eta lan-poltsen birbaremazioari buruzko 35. artikuluan xedatzen da kideen puntuazioa 0,003 puntu igoko dela aurreko urtean izendapena edo kontratua eragin duen poltsan lan egindako egun bakoitzeko.

Ondorioz, egindako birbaremazioak 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean, biak barne, emandako zerbitzuak hartzen ditu.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT

1.- eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzian indarrean dauden lan-poltsa propioak birbarematzea. Birbaremazio horretan, 0,003 puntu emango zaizkie eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzian lan egindako egun bakoitzeko, 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzea arautzen duen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan ezarritako ezaugarriak betetzen dituztenei.

2.- Emandako zerbitzuen birbaremazioaren ondoriozko lan-poltsen ordena berria 2025ko urtarrilaren 20an jarriko da indarrean.

3.- Birbaremazio horren ondoriozko zerrendak eLankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren webguneko www.elankidetzak.euskadi.eus helbidean argitaratzeko agintzea.

4.- Lan-poltsetak langileei jakinaraztea lan-poltsak kudeatzeko zerbitzutik egindako edo jasotako deiak grabatu ahal izango direla, eta datuak aurkatzeko, eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak baliatu ahal izango dituztela, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen arabera.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio eLankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena www.elankidetzak.euskadi.eus helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025ko urtarrilaren 15a

PAUL ORTEGA ETCHEVERRY

eLankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendaria

Director de eLankidetzak-Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad